



jnb

ENPLEGU PUBLIKOKO ESKAINTZA

HEZKUNTZAKO IKUSKARITZA

Datorren astelehenean, **urtarrilaren 26an**, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariak argitara emango du 2009ko urtarrilaren 20ko Agindua. Agindu horren bidez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzako Ikuskarrien Kidegoan sartzeko hautatze-prozedura deitzen du.

Deialdi horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Administrazioak 2008rako egindako enplegu publikoko eskaintza gauzatuko da, Ogasun eta Herri Administrazioako kontseilariaren 2008ko maiatzaren 12ko Aginduaren bidez onartzen dena eta 30 lanpostu dituen.

Hautaketa lehiaketa-oposizio bidez egingo da, eta prozesuan parte hartu ahal izateko, eskakizun hauek bete behar dira: Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntzako funtzio publikoa osatzen duten kidegoren batekoa izatea; doktore-, lizentziatu-, arkitekto- eta ingeniari-titulua edo horiei dagokien graduaren titulua zein titulu baliokidea izatea; eta kidego horietakoren batean karrerako funtzionario gisa gutxienez sei urte jardun izana eta irakaskuntzan ere iraupen bera egin izana egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkeztea.

Hautapen-prozesuko fase bakoitzean zer alderdi baloratuko diren diseinatzeko, zenbat azterketa eta horiek nola egingo diren erabakitzeke eta, oro har, hautapen-prozesuaren garapenarekin lotutako gainerako alderdi guztiak zehazteko, hauek hartuko dira kontuan: Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen duen irakaskuntza-kidegoetan sartu, bertan beste kidego batzuetara igaro eta espezialitate berriak eskuratzeari buruzko Araudian (otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuak onartzen duena) jasotako aginduak eta aipatutako legearen hamazazpigarren xedapen iragankorrean jasotzen den sartzeko behin-behineko erregimena, aipatutako Errege Dekretuak onartzen duena.

Eskabideak eta behar den gainerako dokumentazioa aurkezteko epea **hogei egun naturalekoa** izango da, deialdia argitara eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Oposizio-probak hiru zati izango ditu:

- I.: ikasgai-zerrendako A zatiko gai bat idatziz garatzea.
- II.: Hezkuntzako Ikuskaritzaren jardunerako teknika egokiei buruzko kasu praktiko bat idatziz analizatzea.
- III.: ikasgai-zerrendako B zatiko gai bat ahoz azaltzea.

Aurkezpen-egintza bat egingo da **2009ko ekainaren zehar**, haren bidez, prozesuaren garapena azalduko da, eta izangaiek derrigorrean joan beharko dute bertara.

Gasteiz, bi mila eta bederatziko urtarrilaren hogeita bian